egin miércoles, 31 de octubre de 1984

# Colaboración

El 28 de octubre se ha convertido casi en fecha obligada de reflexión sobre la situación y futuro de nuestro país. Un 28 de octubre de 1978 ocurrió aquella manifestación, convocada por el PNV, y que supuso la división entre los reformistas y rupturistas dentro del mundo abertzale, o entre los «indautxuarrak» y los «santutxuarrak» como denominé a los dos frentes en un artículo de hace exactamente dos años sobre *Rutpura y Resistencia*, haciendo referencia a los dos campos en que se «celebró» la manifestación reformista y se «reprimió» la contramanifestación rupturista, separadas ambas por el Nervión. Y un 28 de octubre de hace dos años el PSOE salió victorioso en las elecciones generales. Ciertas esperanzas, en aquel momento avivadas, se han convertido en frustración, en desesperanza y en rechazo dentro de nuestro pueblo, por la política centralista, represiva y policiesca que ha hecho el Gobierno socialista.

Dos años después hay que hacer una reflexión de nuevo, a la luz de los acontecimientos de este otoño, con las extradiciones y la acentuada represión, y sobre todo a la luz de la movilización popular contra las mismas, que se ha concretado particularmente en la recogida de 300.000 firmas y la espectacular manifestación del día 20 último.

## 28 de octubre

# arrazionaltasuna eta erresistentzia

Orain dela bi urte, Espainiako Alderdi Sozialistaren garaipena zela eta, honelako zerbait adierazi zuen politikako idazle batek (Ramón Pi-k): «Zaharkiturik dagoen sistema politikoa eta ekonomikoa "arrazionaltzera" besterik ez dator Gobernu berriaren "cambio" delakoa».

Zalantzarik ez: arrazionaldu behar haundia zeukan ekonomiak eta politikak. Bi urte hauetan lanik gabe gelditu diren hainbat ehundaka mila langileei galdetu beharko genieke PSOEren politikak ekarri duen arrazionaltasunari buruz!

Baina eta Euskal Herriarekiko politikan? Oraindik orain Madrilgo Gobernuburuak honela laburbildu du bere politika hemengo indar etenzaleei buruz: «A Dios rogando y con el mazo dando». Otoitzaren arrazionaltasuna aitortzen badut ere, ez dirudi demokrazia politikoaren azalpenik bikainena denik esaldi horixe.

Hasteko zera esan behar dela uste dut: Benetako demokraziaren lehen legea, etsai politikoaren arrazionaltasuna ez ukatzea dela. Bi urtetan agintean egon ondoren, ordea, eta Euskal Herrian izan duen porrotaren aitzakitzat, abertzaleen *irrazionaltasuna* aurpegiratzea, beste arrazoirik ez zaie bururatzen nonbait politikari sozialistei. Aspaldiko leloa dute hori sozialistek, eta seguruenik gerora ere entzun beharko dugu abertzale euskaldunok. Alferrik gezurtatuko ditu Eusko Jaurlaritzako ordezkariak berak, Gasteizko Parlamentuan bertan, berriki egin duen bezala.

### Estatutuaren erreferendutik jarkierazko mugimendura

Ostegun honetan ari naiz idazten: urriak 25. Gaur bost urte onartu zen erreferendu batetan Autonomi Estatutua hiru Herrialde hauentzat. Nafarroak ez zuen parterik izan. Iparralde oso urruti gelditu zen. Euskal Herria zatikaturik!

Eta guzti hori gogoratzean, atzo bertan Marcos Vizcayak Madrilgo Parlamentuan esandakoen oihartzuna dut belarrietan: Estatutuarekiko uste onak galtzen ari dira hainbat euskaldun; "argi gorria pizturik dago"; oso larria da egoera Euskal Herrian. Gaur goizean, berriz, gauza beretsua esan du J.M. Bandresek: "Gernikako Estatutua arrisku larrian dago..."

Horrela daude nonbait orain dela bost urte beren itxaropen osoa Estatutuan jarri zutenak. Areago Estatutuak definitu bide zuen autonomi eredua bera zalantzan, eztabaidan, auzipean dago, Estatutu hura hitz sutsuenez goraipatu eta defenditu zutenen artean. Egoera honetara ekarri ditu Estatutuaren aldeko indar nazionalistak eta Euskal Herri osoa, bereziki azken bi urteotako PSOEren politika zentralistak. Orain dela bi urte suspertuiko "Anoetako izpiritua"ren esperantza kale itsuko etsipen bihurtu zaio Estatutuaren aldeko hainbat euskalduneri. Eta berriro ere elkarrizketarako deiak eta negoziaziorako eskaintzak egin badira ere Madrilgo Parlamentuan, ba dirudi inork ez duela benetan sinesten horrelako hitzetan, Garaikoetxearengandik berangandik hasita.

Ba da, ordea, beste alderdirik Euskal Herri honetan gaur: Bizkortzen eta eratzen ari den jarkiera edo erresistentzi mugimendu bakezkoa, indar eta talde herritarretatik sortua eta bultzatua. Azken bi urteotako polizi politika zapaltzailearen (ehundaka atxiloketen, torturen, gerra likitsaren, atzerriratzeen, estradizioen) politikari erantzun herritarra emateko sortu da mugimendu hori. Horrera biltzen ari dira milaka herritar, alderdi politikoen zatiketen gainetik. Guzti horren adierazle bikaina izan da azken hilabeteotan estradizioen kontra bildutako 300.000 izenak eta hil honetako 20an Bilbon egindako manifestaldi galanta. Frantziako eta Espainiako Gobernuek Euskal Herriari buruz daramaten politika bidegabekoaren kontra ari da indartzen bakezko jarkiera herritarraren mugimendua. Herri honen *arrazoia* eraikitzeko.

Ba dira hiru urte, gure Herrian "jasaten" genuen "arrazionaltasunaren topikoari" buruz gogoeta egiten saiatu nintzela. Artikulu sail bat idatzi nuen gai horri buruz; etenda gelditu zen sail hura, azkenera iritsi gabe; izan ere, ba nuen zirriborrotuta beste kapitulu bat behintzat honelako gaiari buruz: "Euskal arrazoia eraiki". Zirriborrotan gelditu zen, ordea. Zintzilik geratutako artikulu hari heldu nahi diot gaur berriro, erresistentzia zibilarekin lotuz.

### Kinka larriko arrazionaltasuna

Fusi historilariaren hitzak dira honako hauek: «Los pueblos no tienen esencia, sólo tienen historia. Y difícil es no encontrar en la de cualquiera de ellos etapas de crisis y momentos de crispación no muy distintos a los que el País Vasco conoce desde principios de la década de los setenta, esos momentos de crisis de la conciencia colectiva en los que la irracionalidad y el horror parecen amenazar con romper todo vestigio de convivencia y tolerancia».

Euskal Herria krisialdi latzean, kinka larrian dagoela ez dago zalantzarik. Baina krisialdi hori irrazionaltasunarekin eta higuinarekin berdintzen badugu, orduan etsi beharrean gaude, Herri hori konpreni ezinaren aurrean. Egoera bera bihurtzen bait zaigu orduan zentzugabea. Egoera bera irrazionaltzat jotzeak besterik ez du egiten, hura ulertzeko norberaren ezgaitasuna aitortu baino.

Herriek ez daukate esentziarik; historia besterik ez dute, Fusik dioenez. Bai... eta lurraldea dute... eta hizkuntza dute... eta kultuura dute... Jakina, guzti horiek historiak ekarri ditu, baina ez dira historia hutsera bihurtzen. Bestalde, Herrien "arrazoi" historikoa ez da iraganean agortzen; etorkizuneko projektuari begiratzen dio. Herrien esentzialismoa irrazionala baldin bada, irrazionala da, baita ere, historiaren determinismoa eta fatalismoa.



Iraganaren arrazoiari etorkizunaren arrazoiak erantzuten dio; etorkizunaren arrazoia, berriz, politiko da. Euskaldunon artean eraiki behar dugu Euskal Herriaren arrazoi politikoa etorkizunari begira.

Guzti horrek bereziki balio du edozein Herriren eta gizataldeken kinka larrietarako, Fusi-k aipatzen dituen horietarako, alegia; hain zuzen ere, *historia egitea* ukatu zaion Herriak bizi ohi du "talde-Kontzientziaren" krisia. Beraz, ez dauka aurrera begiratu besterik, historian ukatu zaion arrazoia bilatzeko eta lantzeko. Historiako agintarientzat irrazionala izan ohi da historian ezarri zaion arrazoiaren kontra erreboltatzen direnen arrazoia.

Bere berberatasunaren bila dabilen Herriaren kinka larriak, ordea, bere arrazionaltasuna du, bere ulergarritasuna, alegia, sarritan larrialdi hori bizi dutenek bakarrik atzeman dezaketena.

### Erresistentziaren arrazoia

Euskal Herriaren eta gizartearen bidegabekeria historikoaren kontra, bere arrazoi politikoa etorkizunari begira eraikitzeko bidea besterik ez da bakezko jarkiera edo erresistentzia herritarra.

Kanpotik ezarritako boterearen *inposizio-politikaren* kontra altxatzen da jarkierazko jokabidea. Izatez, ezberdinak izan ohi dira kanpotik ezarritako sistemari buruzko jokabideak: *negoziazio*-politika da bat, nolabait botere horretan parte izateko asmoz; horren kontrakoa da erabat *konfrontazio*-politika, ezarritako boterearen aurrez aurre jartzen dena, hori suntsitzeko asmoz; tartean dago *partizipazio*-politika, sisteman eskuhartzen duena, ezarritako boterearen politika aldatuz joateko asmoz. *Erresistentziaren politikak*, ezarritako boterea bera higatuz joan nahi du.

Partizipazio-politikaren eta konfrontazioaren artean kokatzen da jarkiera-politika. Hiru momentu ditu, bestalde, jarkierazko jokabideak: aurrenik, herriaren edo gizartearen berberatasuna berreskuratzea; horren kontrako erasoei jarkitzea, bigarrenik, eta hirugarrenik, gizataldearentzat etorkizun berria asmatzea eta bideratzea sormena, alegia. Jakiera-politikaren hiru momentu horiek erabat loturik daude elkarrekin: jokabide berberaren hiru aurpegi besterik ez dira fruntsean. Hiru momentu edo aurpegien barruan, berriz, behar-beharrezkoa du jarkiera-politikaren etengabeko kritika. Hots, jarkiera-mugimenduak eta erakundeak etengabe kritikatu behar du bere bidean egiten dituen urrats guztiak.

Jarkiera-politikak gizataldearen arrazoi politikoa eraiki nahi du; baina *etikan* datza bereziki jarkiera-politikaren arrazionaltasuna. Oinarritu ere, arrazoi etikoen gainean oinarritzen da jarkiera-politika. Horrexegatik gainditzen ditu, gainditu ere, boterean oinarritzen diren edo helburutzat boterea duten alderdi politikoak, eta gizarteko sektore askozaz zabalagoak biltzea lortzen du.

Oso interesgarria da nola, Estatutuaren bost urteak ikusi ondoren (bai eta Nafarroako "Amejoramiento del Fuero"ren bizpahiru urteak ikusi ondoren), erresistentziazko mugimendua berritzen, indartzen eta antolatzen ari den Euskal Herrian. PSOEren Gobernuaren bi urtetako politikak, Euskal Herriari buruzkoak, azken bultzada eman dio seguruenik mugimendu horri.

Gaurko Euskal Herrian arrazoi etiko sakonak eta ugariak ditu noski jarkiera-politikak: giza eskubideen eta eskubide politiko funtsezkoen zapalkuntza, alde askotatik (errepresiorako legeak, adierazpen —eta manifestazio— eskubideen kontrako erasoak, atxiloketa basatiak, torturak, estradizioak, euskararen eta euskal kulturaren kontrako eraso sistematikoak, etab.). Zapalkuntza sozialak, kulturazkoak, hizkuntzakoak eta nazionalak: denak dira jarkiera-politikaren arrazoi etikoak, Euskal Herriaren arrazoi politikoa eraikiz joateko. Euskarari eta euskal erresistentzi mugimendu herritarrari buruz hitz asko eta lan handia dago egiteko.

Aspalditiko bidea berritzen eta indartzen ari da une honetan Euskal Herrian; eutsi, bideratu eta antolatu egin behar.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

# Cartas

## los puntos de cinco en cinco

Con ocasión de la publicación de los denominados "criterios políticos comunes" del PNV-PSOE-EE-CP, propongo otros cinco mucho más gratos y realistas, que son:

I.– El problema más grave del País Vasco, así como del resto de los territorios del mundo donde esto sucede, es la pervivencia de los sistemas de explotación del hombre por el hombre. Los síntomas de intolerancia hacia este estado de cosas tan demencial por parte de los directamente extorsionados, es decir gobernados y planificados, son señales de salud mental de las que hay que alegrarse mucho.

II.– Los problemas que origina esta situación son innumerables y cuestionan radicalmente la condición humana de las clases y grupos políticos interesados en que el capitalismo, del tipo que sea, sobreviva. Los arriba firmantes se encuentran, cómo no, entre lo más selecto de ellos. Los problemas referentes a esta real falta de convivencia, ¡quién puede convivir con los que se aprovechan de tu vida!, sólo se pueden resolver mediante la supresión de los inhumanos que viven del trabajo ajeno. Los arriba firmantes, como queda dicho, destacan en este último grupo.

III.– La Constitución y el Estatuto de Gernika no merecen el mínimo respeto ni consideración: Son propaganda y están hechos por dinero.

Son actas de los planes generales de violencia sobre los trabajadores. Los arriba firmantes rechazan cualquier otro tipo de violencia: sólo ellos tienen derecho a explotar en el territorio del Estado español, y en otros de ultramar según lo permita la organización planetaria del cotarro, y, por supuesto, no toleran cualquier tipo de reacción violenta protagonizada por los gobernados.

IV.– Los problemas que se derivan de este delirante estado de cosas se negocian entre los arriba firmantes: jamás se trata con los salvajes de la chusma, los firmantes se lo guisan, los firmantes se lo comen.

V.– "Se intentará que los más tozudos y rebeldes del grupo de los gobernados vuelvan al redil: resistirse es tonto porque no lleva a ningún lado y quien no se reinserta es porque no quiere", repiten como papagayos. De lo que no se enteran es que quienes lo tienen cada vez más difícil para "insertarnos" su rollo son ellos, los arriba firmantes: se os está cogiendo manía.

Los próximos cinco puntos se referirán a pañuelos, tiragomas, tuercas, mangueras y barricadas; el blanco son ellos, los de siempre, los arriba firmantes.

Mikel ALONSO